# SEANCE DU 24 SEPTEMBRE 2014
# 2014KO IRAILAREN 24KO BILKURA

## DECISION MODIFICATIVE N° 1 AU BUDGET PRINCIPAL

Le Conseil Municipal a adopté la décision modificative suivante :

## AURREKONTU NAGUSIAREN LEHEN DELIBERO ALDATZAILEA

Herriko kontseiluak delibero aldatzaile hau hartu du :

| | | |
|---|---|---|
| **FONCTIONNEMENT / FUNTZIONAMENDUA** | | |
| | | |
| **DEPENSES / GASTUAK** | | **8 300** |
| 6411 - Personnel titulaire | Langile titularra | 2300 |
| 66111 - Intérêts emprunts | Maileguen interesak | 6000 |
| **RECETTES / DIRU SARTZEAK** | | **8300** |
| 6419 - Remboursement sur rémunération personnel (I.J - CAE) / Langilearen soldaten gaineko diru itzultzea | | 2 000 |
| 74121 - Dotation de solidarité rurale | Baserrialdeko elkartasun dohaintza | 1800 |
| 7788 - Produits exceptionnels divers (remboursement assurance) | Ezohiko produktu ezberdinak (asurantzaren ordainketa) | 4 500 |
| **INVESTISSEMENT / INBESTIMENDUA** | | |
| | | |
| **DEPENSES / GASTUAK** | | **65000** |
| 1641 - Capital des emprunts | Maileguen kapitala | 6000 |
| 2031 - Opération "étude urbanistique" | "Hirigintzako ikerketa" operazioa | -11000 |
| 2313 - Construction multiple rural | Baserriko zerbitzu gunearen eraikitzea | 100 000 |
| 2315 - Extension réseaux | Sareen hedatzea | -15000 |
| 27638 - Participation réhabilitation décharge Abarratia | Abarratia zikintegiaren antolatzean parte hartzea | -15000 |
| **RECETTES / DIRU SARTZEAK** | | **65000** |
| 10223 - Taxe locale d'Equipement | Tokiko hornikuntza zerga | 3000 |
| 1336 - Participation pour voirie et réseaux | Bide eta sareendako parte hartzea | 2000 |
| 1641 – Emprunt | Mailegua | 60000 |
| | | **65000** |

## REMBOURSEMENT DE FRAIS A L'APE DE L'ECOLE PUBLIQUE

Le Conseil Municipal a décidé le remboursement de la somme de 280.00 € à l'Association des Parents d'Elèves de l'Ecole Publique ; somme correspondant aux fournitures achetées par l'Association, pour la fabrication d'un meuble destiné à l'école.

## ESKOLA PUBLIKOKO GURASO ELKARTEAREN GASTUEN ORDAINKETA

Herriko kontseiluak deliberatu du 280.00 € itzultzea Eskola Publikoko Gurasoen elkarteari ; diru zama hau elkarteak eskolarendako altzari baten eraikitzeko xahutu zuen.

## RENOUVELLEMENT CONVENTION DE JUMELAGE AYHERRE/ANTZUOLA

Après avoir rappelé la convention de jumelage passée entre Ayherre et Antzuola, le 29 octobre 2004, M. le Maire précise qu'à l'occasion des 30 ans d'échanges entre les deux communes, la convention pourrait être revue. Le projet de convention souligne notamment que le jumelage liant les deux communes est particulier en ce sens qu'il est né de la volonté des villageois et est fondé sur des relations d'amitié, que la même langue, l'euskara, est parlé de part et d'autre et qu'enfin les deux communes sont prêtes à encourager l'institution Udabiltza pour que d'autres communes suivent le chemin tracé par Ayherre et Antzuola.
Le projet de convention a été approuvé à l'unanimité.

## AIHERRA / ANTZUOLA PAREKATZE HITZARMENAREN BERRITZEA

2004ko urriaren 29an Aiherra eta Antzuolak izenpetu zuten parekatze hitzarmena oroitarazi ondotik, auzapez jaunak zehazten du, bi herrien arteko harremanen 30 urteen kari, hitzarmen hau berrikusia izan litekeela. Hitzarmen proiektuak azpimarratzen du, besteak beste, herriak lotzen dituen parekatzea berezia dela herritarren nahikeriatik sortu delako eta laguntasun harremanetan oinarritua dela, hizkuntza bera, euskara, bi aldeetan mintzatua dela eta bukatzeko bi herriak Udalbiltza erakundearen laguntzeko prest direla, beste herri batzuek Aiherra eta Antzuolak ireki bidea segi dezaten.

Hitzarmen proiektua aho batez onartua izan da.

## APPELLATION MULTIPLE RURAL

Monsieur le Maire expose que le nouveau multiple rural n'a pas encore de nom officiel. Les élus se sont penchés sur les propositions d'appellation envoyées par les villageois. 5 noms ont été retenus et vont être soumis prochainement au vote des administrés, via le site internet « Ayherre.fr ». Il s'agit de :

- Gozategia,
- Plaza xokoa
- Aiherrikoa
- Xoko ona
- Gure Xokoa

## BASERRIKO ZERBITZU GUNEAREN IZENA

Auzapez jaunak jakinarazten du baserriko zerbitzu gune berriak ez duela oraindik izen ofizialik. Hautetsiek herritarrek igorri dituzten izen proposamenak aztertu dituzte. 5 izen atxikiak izan dira eta laster herritarrei proposatuak izanen zaizkie, "Ayherre.fr" webgunearen bidez. Hauek dira :

- Gozategia,
- Plaza xokoa
- Aiherrikoa
- Xoko ona
- Gure Xokoa

## POINT SUR LA BOULANGERIE

Monsieur le Maire a fait part à l'assemblée de la lettre qu'il a adressée aux boulangers, suite à leur départ précipité et à la décision de fermer la boulangerie sans avoir au préalable informé la Commune. Toutefois, la Commune a accepté cette décision et a établi à cet effet une convention de résiliation à l'amiable. La convention fixe notamment la date de résiliation au 3 septembre 2014 et leur rappelle les dispositions financières qui leur incombent en matière de loyers et charges.

Monsieur le Maire précise que certes au départ, doutant de la pertinence et de la viabilité d'une boulangerie, il n'était pas favorable au projet d'ouverture; mais l'expérience menée par les derniers boulangers a démontré que ce service proposé répondait à un réel besoin, une réelle attente de la part de la population. Par conséquent, il réitère sa volonté de mener le projet de boulangerie à terme.

## OKINDEGIAZ PUNTUA

Auzapezak okiner igorri dien gutunaren berri eman dio batzordeari , haien presazko abiatzearen eta Herriko Etxea aitzinetik abisatu gabe okindegiaren hestearen ondotik. Haatik, Herriko Etxeak delibero hau onartu du eta horrendako onez onean egin hauste hitzarmena idatzi du. Hitzarmenak hauste data finkatzen du besteak beste, hala nola 2014ko irailaren 3a, eta haien betebeharrak oroitarazten dizkie, alokairu eta kargu mailan.

Auzapez jaunak zehazten du hastapenean, okindegi baten egokitasun eta bizigarritasunaz dudatzen zuela, eta horregatik ez zela irekitze proiektuaren alde ; bainan azken okinek eraman lanak erakutsi du proposatua zen zerbitzu horrek herritarren zinezko behar bati arrapostu emaiten ziola. Ondorioz, okindegi proiektua bururaino eraman nahi duela errepikatzen du.

Ainsi, un nouvel appel à candidatures est lancé pour tenter de trouver au plus vite un boulanger désireux de s'installer dans la nouvelle boulangerie, entièrement équipée. Parmi les critères de recrutement seront pris en compte la qualité des produits proposés, l'amplitude d'ouverture de la boulangerie, la volonté de travailler en concertation avec le cafetier.

La date de réception des travaux du multiple rural a été fixée au mardi 30 septembre 2014, à 9 heures.

## QUESTIONS DIVERSES

- Service voirie et réseaux intercommunal

Monsieur le Maire informe que l'APGL (Agence Publique de Gestion Locale) située à la Maison des Communes, à Pau, dispose d'un service voirie et réseaux intercommunal et fournit aux collectivités qui adhèrent une assistance en matière d'aménagement d'espaces publics, de voirie, d'ouvrages d'arts, d'espaces verts et de réseaux (eau potable, défense incendie, éclairage public, d'eaux pluviales …). Il souligne l'intérêt d'un tel service suite au récent désengagement des services de l'Etat en la matière. L'adhésion au service pourrait être envisagée pour 2015. Le Conseil Municipal manifeste son intérêt pour l'adhésion au dit service.

- Comité des Fêtes

Monsieur Samuel BISCAY, présent à la dernière assemblée générale du comité des fêtes, a rappelé à ses membres la fin de la mise à disposition de la licence IV au comité des fêtes, et ce en raison de l'ouverture du nouveau café. Il fait part de la demande du comité quant à la construction d'un abri près du local technique communal , pour la cuisson des gigots de mouton.

Beraz deialdi berri bat egina da, osoki hornitua den okindegi berrian instalatu nahi duen okin baten aurkitzeko ahal bezain fite. Norbaiten hartzeko irizpideetan, kontuan hartua izanen da besteak beste proposatuak diren produktuen kalitatea, okindegiaren irekitze tenore zabalak, ostalariarekin elkarlanean aritzeko nahia.

Baserriko zerbitzu gunearen obren bururatze eguna 2014ko irailaren 30an finkatua da, 9:00etan.

## BESTE GALDERAK

- Herriarteko bide eta sareen zerbitzua

Auzapez jaunak jakinarazten du Paueko Herrien Etxean kokatua den APGL-ek (Tokiko kudeaketaren erakunde publikoa), herriarteko sare eta bideen zerbitzu bat baduela eta honen kide bihurtzen diren elkargoei laguntza bat emaiten diela eremu publikoen antolamendu mailan, bidegintza mailan, arte obra mailan, berdegune eta sare mailan (edateko ura, suteen defentsa, herriko argiak, euri urak…). Halako zerbitzu baten interesa azpimarratzen du, ikusiz berrikitan izan den estatuaren gibel egitea sail horretan. Zerbitzu horren kide izaitea posible liteke 2015tik goiti. Herriko kontseiluak bere interesa erakusten du zerbitzu horren kide izaiteko.

- Pesta komitea

Samuel BISCAY jaunak, pesta komitearen azken biltzar nagusian izanik, hango kideei oroitarazi die oraindik goiti herriak ez ziela gehiago IV lizentzia utziko, kafetegi berria ireki baita. Komitearen eskaera baten berri emaiten du, hala nola herriko tresnategiaren ondoan aterbe baten eraikitzea, zikiroen erretzeko.

Fait à AYHERRE, le 30 septembre 2014
AIHERRAN egina, 2014ko irailaren 30an

Le Maire, Auzapeza

Arño GASTAMBIDE